

LIBERALISMOA ETA NAZIONALISMOA

Estatu Orokorrak:

Antzinako Erregimenaren hiru Estatuetakoko ordezkarien bilera zen: kleroa, nobleak (minoritarioak biak), eta Hirugarren Estatua (herritar gehienak). Bere funtzio nagusia erregearen zerga sistema onartzea zen.

Luis XVI.a:

Frantziako errege 1774 eta 1792 bitartean. Bere erregealdian Frantziako Iraultza hasi zen. 1791n ihes egin nahi izan zuen (Varenneseke ihesa), Frantzia inbaditu eta absolutismoa berrezartzeko asmoa zuen austriar ejertzitoari batzeko, baina atxilotu egin zuten. 1792an Konbentzioak tronutik kendu eta, errepublika aldarrikatu ondoren, epaitu eta lepoa moztu zioten.

Batzar Nazionala:

Nazioa ordezkatzeko duen asanblada.

Monarkia konstituzionala:

Politika sistema honen arabera, Estatuko burua erregea da, Konstituzioa eta Parlamentuaren erabakiak errespetatu behar dituenak.

Errepublika demokratikoa:

Frantzian 1792 eta 1794 bitartean izan zuten gobernu-era, muturreko burgesek eta sektore herrikoiek babestu zutena.

Burges errepublika:

Frantzian 1794 eta 1799 bitartean izan zuten gobernu-era, burgesia atzerakoiak babestu zuena.

Nazio subiranotasuna:

Erregeak ez du botere publikoaren agintea, nazioak baizik. Nazioa berezko entitatea da, eratzen duten norbanakoengandik berezia, eta hauteskunde zentsitario bidez aukeratutako parlamentu batek ordezkatu.

Sufragio zentsitarioa (ez-zuzena):

Hauteskunde-sistema. Eskubide mugatu honen arabera, ondasun handiak edo diru iturri mardulak dituzten pertsonak dira botoa eman ahal duten bakarrak.

Sufragio unibertsala (zuzena):

Hauteskunde-sistema honen arabera, adinez nagusiak diren gizon-emakume guztiei onartzen zaie botua emateko eskubidea.

Beto eskubidea:

Erregearen edo beste edozein erakunderen eskubidea, batzarrak onartutako legeren bat indarrean sartzearen aurka jotzekoa.

Desamortizazioa:

Estatuak abiatutako prozedura, Elizaren eta hainbat entitate zibilen jabetzak enkantean jartzeko eta gizabanakoen jabetza pribatu bihurtzeko.

Vareneseko ihesa:

1791ko ekainean, errege familiak, Frantzia inbaditu eta absolutismoa berrezartzeko asmoa zuen austriar ejertzitoari batzeko Paristik egindako ihesa.

Konbentzioa:

- ✓ 1792ko Frantziako Errepublika aldarrikatu ondoren, sufragio unibertsalaren bidez hautatutako batzarra, konstituzio berria idazteko xede zuena.
- ✓ Batzar Legegilea ordezkatu zuen Batzar iraultzailea (1792-1795).

Girondinoa:

Muturreko iraultzailea, Frantziako Konbentzioko (1792) diputatu taldekoa, jakobinoa baino moderatuagoa den burgesa.

Jakobinoa:

Muturreko iraultzailea, Errepublikako Konbentzio garaian (1793) Frantziako jarduera politikoa zuzendu zuen talde erradikaleko kidea.

Cordeliers:

Elkarte politiko estremista, errepublikaren aldekoa, Frantziako Iraultzan eratua.

Sans-Culottes:

Parisko giza talde xumeetako kideak, politikoki oso erradikalak.

Salbamen Publiko Batzordea:

Jakobinoren konbentzioaren garaian botere exekutiboaz arduratzen zen taldea.

Robespierre:

Politikari frantsesa. Konbentzioan, jakobinoren buru zelarik, salbuespen-erregimen bat ezarri zuen agintea zentralizatuz eta errepresioa areagotuz (Izualdia). Epe labur batean Frantziako burua izan zen, bere aurka emandako estatu-kolpeak (Termidorren erantzuna) agintetik kendu eta gilotinara bidali zuen arte.

Susmagarrien legea:

Jakobinoen Konbentzioan eraturako epaitegi iraultzaileek praktikan jarritako legea; kontrairaultzaile susmopean zeudenei heriotza edo espetxe zigorra ezarri zieten.

Maximun legea:

Konbentzio jakobinoaren garaian premia biziko zenbait gai saltzeko prezio maximoa xedatzen zuen legea.

Direktoriaoa:

Frantziar Iraultzan Konbentzioari jarraitu zitzaion erregimen-mota, 1795eko konstituzioak ezarria. 1795eko urritik Napoleonek estatu-kolpea eman eta Kotsulatua ezarri zuen arte iraun zuen.

Kotsulatua:

Frantziako erregimen politikoa (1799-1804), Brumaireko estatu-kolpearen ondoren sortua. Lehen kotsula zen Napoleon Bonapartek bere burua enperadore izendatu zuenean amaitu zen.

Napoleon:

Frantziako enperadore (1804-1815). Armadako buruzagi, Brumaireko estatu-kolpearen ondoren kotsul izendatua (1799). 1804an, bere burua enperadore izendatzea agindu zuen. 1814an garaitua izan eta gero agintea utzi zuen. Itzulera iragankor baten ostean, 1815ean Waterlooko bataila galdu zuen, eta Santa Elena uhartera erbesteratu zuten. Hantxe hil zen 1821ean.

Konkordatua:

Elizako aferen gaineko hitzarmena, Estatuaren eta Sede Santuaren artean egina.

Kode zibila:

Lege zibilen multzoaren bilduma da, Estatu oso batean ezartzekoa.

Vienako Kongresua:

1814 eta 1815 bitartean, Napoleon garaitu zuten Estatuak Vienan egindako bilera, monarkia absolutistak berrezartzeko eta Europako mapa birmoldatzeko asmoz.

Aliantza Santua:

1815ean Errusia, Prusia eta Austriak sinaturako tratatua; Europako erregeek, edozein iraultza liberalen mehatxuaren aurrean, elkarri laguntzeko konpromezua hartzen zuten.

Liberalismoa:

Gizartea norbanakoarengan oinarritzen duen sistema politikoa; Estatuak gizakien oinarritzko eskubide eta askatasunak bermatu behar ditu. Horretarako:

- ✓ Erabakiak sufragioz aukeratutako Parlamentuan hartzen dira.
- ✓ Botereen banaketa ziurtatuko duen konstituzioa defendatzen du.
- ✓ Jabetza pribatua.

Nazionalismoa:

Ideologia politiko bat da, herriek beraiei dagozkien gaitan erabakitzeko eskubidea daukatela eta beraien subiranotasuna babestu dezaketela defendatzen duena.

Nazioa:

Berezko lotura kulturalak (erlijioa, hizkuntza, ohiturak, iragana...) dituzten eta elkarrekin bizi nahi duten hiritarren multzoa.